

## HITZAURREA

**A**urten On Jose Migel Barandiaranek Eusko Folklore proiektua abian jarri zuenetik 100 urte betetzerakoan, ezinbestekoa zen Urtekariaren ale hau Euskal Herriko azterketa antropologiko eta etnografikoen panoraman ekintza horrek gaur egun arte eman dituen emaitzen lagin adierazgarri bat jasotzen saiatzea. Egia esan, jakin badakigu Barandiaranen lanak azterlan horien garapenean izan duen eragina liburu honetan jaso ahal izan duguna baino askoz ere handiagoa dela. Jakina, hemen ez da agortzen ekarpen horien azterketa, baina, gure ustez, erreferentzia esanguratsuak ematen dira, gaia sakontzen jarraitzeko abiapuntu izan daitezkeenak.

Ehun urteko ibilbide luze eta gorabeheratsuan zehar, Eusko Folklorearen Urtekariak hainbat etapa ezagutu ditu 1921ean sortu zenetik gaur egunera arte, eta atal honetako lehen artikuluan laburbiltzen saiatu gara, **Eusko Folklore Urtekariaren ehun urte (1921-2021)** izenekoa, **Abel Ariznabarreta Zubero** egungo zuzendariaren eskutik. Bertan adierazten denez, mende horretan zehar, Urtekarian landutako edukiak ikusita, esan dezakegu aldizkari honek

## PRÓLOGO

**E**l hecho de que este año se cumplan 100 años desde la puesta en marcha del proyecto Eusko Folklore por José Miguel de Barandiaran, hacía inevitable que este número del Anuario lo dedicásemos a tratar de recoger en él una muestra representativa de los frutos que tal empresa ha ido dando hasta nuestros días en el panorama de los estudios antropológicos y etnográficos de Euskal Herria. Ciertamente, somos conscientes de que la incidencia que la labor de Barandiaran ha tenido en el desarrollo de tales estudios va mucho más allá de lo que en este tomo hemos podido plasmar. Evidentemente, no se agota aquí el análisis de tales aportaciones, pero pensamos que sí se dan unas referencias significativas que pueden servir de punto de inicio para seguir profundizando en el tema.

A lo largo de su larga y azarosa trayectoria de cien años, el Anuario de Eusko Folklore ha conocido diferentes etapas desde su creación en 1921 hasta el día de hoy, que tratamos de resumir en el primero de los artículos de este número, **Eusko Folklore Urtekariaren ehun urte (1921-2021)**, de la mano de su actual director **Abel Ariznabarreta Zubero**.

Barandiaranek sortutako eskola etnografikoaren, hau da, euskal eskola etnografikoaren, printzipio metodologikoak definitzen eta argitaratzen lagundu duela. Ugari izan dira etnografia egiteko planteamendu eta oinarri metodologiko berri horien iturritik edan duten ikertzaile norbanako zein taldeak. Horietako bat, zalantzarik gabe, Labayru Fundazioa izan da, bigarren artikulua- ren egileek beraiek, **Igone Etxebarria Zamalloak** eta **Akaitze Kamiruaga Garitaonaindiak**, erakunde horren ize- nean aitortzen duten moduan: **Labayru Fundazioa Barandiaranek zabaldu- tako bidetik**. Izan dira Urtekariak bere ibilbide horretan bidelagun izan dituen erakundeak ere: Eusko Ikaskuntza eta Aranzadi Zientzia Elkarteak, besteak bes- te. EHUko irakaslea den **Aitzpea Lei- zaola Egaña** Aranzadi Elkarteko iker- tzaile aitortua dugun **Fermin Leizaola Calvori** egiten dion elkarrizketaren bi- dez, **Los años difíciles: El resurgimien- to del Anuario de Eusko Folklore en la Sociedad de Ciencias de Aranzadi (1955-1984)**, Urtekariaren historiaren atal garrantzitsu bat dakarkigu.

Eusko Folklore Urtekariaren bidez Barandiaranek aurrera eramandako ekimen hori azpimarragarria da Euskal Herriaren antropologia-ikasketen ikus- pegitik, eta gai horretaz jakin-mina izan dutenen artean printzipio horiek zabal- tzeke balio izan du, are gehiago gure inguruko unibertsitateetan ikasketa horien arrastorik ez zegoenean. Baina euskal antropologia eremu akademiko- tik at sortu zela esan dezakegun arren,

A la vista de los contenidos trabajados en el Anuario a lo largo de su existencia, podemos afirmar que esta revista ha con- tribuido a definir y publicar los principios metodológicos de la escuela etnográfica creada por Barandiaran, es decir, de la es- cuela etnográfica vasca. Han sido nume- rosos los individuos, grupos de investiga- dores e instituciones que han bebido de la fuente de estos nuevos planteamientos y bases metodológicas para trabajar la et- nografía. Una de ellas, sin duda, ha sido la Fundación Labayru, tal y como reco- nocen las propias autoras del segundo artículo, **Igone Etxebarria Zamalloa y Akaitze Kamiruaga Garitaonaindia**, en representación de dicha entidad: **Labayru Fundazioa Barandiaranek zabaldu- tako bidetik**. También ha contado el Anuario con instituciones compañeras de viaje que le han ayudado y protegido en su acciden- tada trayectoria: Eusko Ikaskuntza y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, han sido dos de ellas. A través de la entrevista que realiza a Fermín Leizaola Calvo, reconoci- do investigador de la Sociedad Aranzadi, **Aitzpea Leizaola Egaña**, profesora de la UPV, nos trae a la memoria un importante capítulo de la historia del Anuario, en el artículo que lleva por título **Los años di- fíciles: el resurgimiento del Anuario de Eusko Folklore en la Sociedad de Cien- cias de Aranzadi (1955-1984)**.

Esta iniciativa llevada a cabo por Barandia- ran a través del Anuario de Eusko Folklore es destacable desde el punto de vista de los estudios antropológicos del País Vasco y ha servido para difundir esos principios entre quienes han tenido interés por el

argi dago gerora, 80ko hamarkadatik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitatera heltzerakoan, izan zuela eraginik Barandiaranek aurretiaz markatutako bideak, bai bere ezarpenean baita ondoren ezagutu duen bilakabidean ere. Hortaz ari zaigu **Ixone Fernandez de Labastida Medina**, antropologo eta EHUko irakaslea, **Antropologia Euskal Herriko Unibertsitatean: Akademizaziotik bikaintasunera** deitu duen artikuluan. Unibertsitateko ikasketetan diziplina antropologikoa ezarri eta garatzearekin batera, gizarte-arloan esku hartzeko interesa ere sortzen da bertan. Horretarako, zenbait kasutan, antropologiaren inguruan elkartzeko, eztabaidatzeko eta ezagutza sortzeko eta gizarte dinamizatze guneak sortuko dira. Hori da **Ankulegi Euskal Herriko Antropologia Elkartearen** kasua. Bere ibilbidea, errealizazioak eta egungo erronkak aurkezten dizkigute **25 años de ANtropologia, KULTura Eta GIzartea** izenburu pean elkarte horretako hainbat kidek osatutako artikuluan.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, Ikerketa Zientifikoko Zentro Nazionalan (CNRS) ikerketa arduraduna den **Xabier Itçaina Malharin** irakasle eta ikertzaileari galdetu diogu nolakoa izan den gizarte zientzien eta etnografiaren aldetik, bereziki, Ipar Euskal Herriari buruzko ikerketei egindako ekarpena. Horri erantzunez, bere artikuluan, **Etnografiatik gizarte zientzietarat: Ipar Euskal Herria ikergai**, azpimarratzen ditu, alde batetik, etnografiaren gai kla-

tema, máxime cuando no existía presencia alguna de esos estudios en las universidades de nuestro entorno. Pero, aunque podemos afirmar que la antropología vasca surgió fuera del ámbito académico, es evidente que más tarde, a partir de los años 80, al incorporarse ésta a la Universidad del País Vasco, influyó, tanto en su implantación como en su posterior evolución, el rumbo marcado previamente por Barandiaran, en cuanto a planteamientos de trabajo y principios metodológicos se refiere. **Ixone Fernández de Labastida Medina**, antropóloga y profesora de la UPV analiza dicho proceso de los estudios antropológicos universitarios, en su artículo **Antropologia Euskal Herriko Unibertsitatean: Akademizaziotik bikaintasunera**. Paralelamente a la implantación y el desarrollo de la disciplina antropológica en los niveles universitarios surge el interés por intervenir desde los mismos en el ámbito social. Ello se concretará, en algunos casos, en la creación de espacios de encuentro, de debate y generación de conocimiento, de dinamización social en torno a la antropología. Es el caso de la **Asociación Vasca de Antropología Ankulegi**, cuya trayectoria, realizaciones y retos actuales nos presentan en el artículo **25 años de ANtropologia, KULTura Eta GIzartea**, algunos de sus miembros en nombre de dicha Asociación.

En lo que respecta a Iparralde, hemos preguntado por la contribución a las investigaciones sobre Ipar Euskal Herria desde las ciencias sociales y, en particular, desde la etnografía al profesor y responsable de investigación en el Centro Nacional de

sikoen berriztatzea, eta bestetik, antropologia politiko baten gorakadarekin batera, aldaketa sozio-ekonomikoez garatzen ari den ikerketa-lerro berria. Bestalde, ez da lan erraza orrialde gutxi batzuetan Nafarroak azken bi mende hauetan izan duen bilakaera etnografiakoari errepasso ahalik eta osoena egiten saiatzea. Horrexegatik, eskertzekoa da benetan, egun Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra aldizkariaren zuzendaria den **David Mariezkurrena Iturmendi** bere **Apuntes sobre la investigación etnográfica en Navarra** artikularekin egiten digun ekarpen interesgarria. Eta Euskal Herrian zeharko ibilaldi hau ezin amaitutzat eman euskal diasporan egiten diren euskal ikerketa antropologiko eta etnografikoen aipamenik egin gabe. Lagin esanguratsu moduan bat hartu behar eta, oraingoan, euskal kultura arloan ikerketak bideratzea eta euskaldunei buruzko ikerlanaren emaitzak bertan, Amerikako Estatu Batuetan eta nazioarteko mailan zabaltea xedetzat duen Renoko Center for Basque Studies (CBS) ikergunera jo dugu. Erakunde horren zuzendaria den **Xabier Irujo Ametzagak** egiten ari diren lanaren berri eta etorkizunerako lan ildoak azaltzen dizkigu **Renoko Euskal Ikergunea gaur** izendatu duen artikuluan.

Etnografia beti izan da zeregin zehatza, eta konbentzimendua, konstantzia eta bihotza eskatu ditu. Errespetuz eta pazientziaz entzuten jakitea, informatzaileek emandako datuak balioetsiz. Zeregin hori nekeza zela iragarri zigun

Investigación Científica (CNRS), **Xabier Itçaina Malharin**. En respuesta, en su artículo **Etnografiatik gizarte zientzietarat: Ipar Euskal Herria ikergai**, destaca la renovación de los temas clásicos de la etnografía producida los últimos años, así como el auge de una antropología política junto con el desarrollo de nuevas líneas de investigación enfocadas al análisis de los cambios socio-económicos. Por otra parte, no es tarea fácil intentar en unas pocas páginas hacer un repaso lo más completo posible a la evolución etnográfica de Navarra en estos dos últimos siglos. Es por ello de agradecer la interesante aportación que nos hace **David Mariezkurrena Iturmendi**, director de la revista Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, con su artículo **Apuntes sobre la investigación etnográfica en Navarra**. Pero no podíamos dar por finalizado este recorrido por los distintos territorios de Euskal Herria sin hacer mención a los estudios antropológicos y etnográficos vascos que se realizan en la diáspora vasca. Al objeto de presentar una muestra significativa de los mismos, en esta ocasión, hemos acudido al Center for Basque Studies (CBS) de Reno, cuyo objetivo es la investigación en el ámbito de la cultura vasca y la difusión de los resultados del estudio en Estados Unidos y a nivel internacional, además de en Euskal Herria. **Xabier Irujo Ametzaga**, director de esta entidad, nos explica en el artículo titulado **Renoko Euskal Ikergunea gaur**, el trabajo que están desarrollando en la actualidad, así como las propuestas de futuro.

jada On Jose Migel Barandiaranek Urtekariaren lehen zenbakiaren hitzaurrea idatzi zuenean, 1921eko abenduan, duela ehun urte, eta berak jarri zion izenburua: “Gure ahalegina”: *“en esta delicada labor, o mejor dicho, en este difícil sendero que nos ha de conducir a las profundidades del espíritu vasco y a las lejanías de su pasado, procuraremos sustraer nuestra mente a influencias no justificadas, a principios no probados, dando de mano a aquellos métodos y teorías cuyos resortes, si no inducen francamente a los abismos del error, tienden, cuando menos, a sacrificar en aras de sus prejuicios las realidades aún no investigadas, las verdades todas del porvenir. Tales son nuestras miras, tales los medios, con los que, ayudándonos Dios, esperamos dar cima a nuestro empeño”*.

Eusko Folklore Urtekariaren 55. ale hau amaitzeko, bi ekarpen dakartzagu, euskal etnografiarekin zerikusi zuzena duten bi museo-proiektuk bultzatzaileei eskatu dieten esfortzua eta ahalegina, “enpeinua”, erakusteko. Bata Diman, Bizkaian, eta bestea Artziniegan, Araban. Lehenengoan, **Cristina Amezaga Laitak** eta **Elena Amezaga Laitak Antzasti, Euskaldunon Etxea**, martxan jartzeko prozesuaren historia kontatzen digute. Etxe hori museo bihurtua dute, eta bertan, bi bilduma errealean bitartez eta etxearen kontzeptua ardatz hartuta, gure gizartean XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran izandako aldaketen berri emateaz gainera, emakumearen lanerako tradiziozko lekuari arreta berezia jartzea du helburu bi emakumeren ekimenez sortu eta ku-

La etnografía ha sido siempre una tarea minuciosa que ha exigido convencimiento, constancia y corazón. Saber escuchar con respeto y paciencia, poniendo en valor los datos aportados por los y las informantes. Tarea ésta que ya anunciaba como ardua D. Jose Miguel de Barandiaran al redactar el prólogo del primer número del Anuario, en diciembre de 1921, hace cien años, y que él mismo tituló “Nuestro empeño”: *“en esta delicada labor, o mejor dicho, en este difícil sendero que nos ha de conducir a las profundidades del espíritu vasco y a las lejanías de su pasado, procuraremos sustraer nuestra mente a influencias no justificadas, a principios no probados, dando de mano a aquellos métodos y teorías cuyos resortes, si no inducen francamente a los abismos del error, tienden, cuando menos, a sacrificar en aras de sus prejuicios las realidades aún no investigadas, las verdades todas del porvenir. Tales son nuestras miras, tales los medios, con los que, ayudándonos Dios, esperamos dar cima a nuestro empeño”*.

Cerramos este número 55 del Anuario de Eusko Folklore con dos aportaciones que nos muestran el esfuerzo, el empeño, que han requerido de sus impulsores dos proyectos museísticos relacionados con la etnografía vasca. Uno, en la localidad de Dima, Bizkaia, y otro en Artziniega, Araba. En el primero de ellos, **Cristina Amezaga Laita** y **Elena Amezaga Laita** nos relatan la historia del proceso de puesta en marcha de **Antzasti, Euskaldunon Etxea**, una casa convertida en museo donde, partiendo del concepto de la casa, *etxea*, en la cultura vasca y prestando especial atención al lugar tradicional de trabajo de la mujer, a

deatutako proiektu pertsonal honek. Bigarren kolaborazioan, **M<sup>a</sup> Librada Yarritu Polancosek** eta **M<sup>a</sup> Francisca Ofizialdegi Fernandezek**, herri ekimenez sortu eta hasieran **Museo Etnográfico de Arceniega (1984-2002)** deitu zena, gerora **Artziniega Museoa (2002-2021)** izena hartu zuenaren sorrera, garapena eta duen gaurkotasuna kontatzen digute. 1984an inauguratu zen Arteko Gure Amaren santutegiko zalditegietan, eta 2004an Karmeldarren ikastetxe zaharreko lokaletara lekualdatu zuten, ikastetxe hori xede horretarako birgaituz. Gaur egun, funtsean, industrializazioa iritsi aurreko bizimodua erakusten da bertan.

través de dos colecciones reales dan cuenta de los cambios producidos en nuestra sociedad a finales del siglo XIX y comienzos de XX. En la segunda de las colaboraciones, **M<sup>a</sup> Librada Yarritu Polancos** y **M<sup>a</sup> Francisca Ofizialdegi Fernandez**, nos relatan el origen por iniciativa popular, su desarrollo y actualidad del **Museo Etnográfico de Arceniega (1984-2002) / Artziniega Museoa (2002-2021)**. Inaugurado en 1984 en las caballerizas del santuario de Nuestra Señora de la Encina, en 2004 se trasladó a los locales del antiguo colegio de las Carmelitas, rehabilitado para este fin, donde actualmente se muestra, básicamente, el modo de vida anterior a la llegada de la industrialización.

Eskerrik asko denoi.

**Abel Ariznabarreta Zubero**

*Eusko Folklore Urtekariko Zuzendaria*

*Director del Anuario de Eusko Folklore*